

## LUZAIDKO MARKESA

Gauzak ongi itzulikatu balira, Josefa Fernanda-k bizitza ospetsu bat eramane zukeen Espainiako gortean. Zergatik joan ziren bada ihesi ?

Josefa-k ez baitzuen bere odolari zegokion ezkontza egin ; alabaina errege odolekoa zen. Familia guzia kontra jarri zitzaion. Bi gazteek elgar ezagutu zuten, noiz eta ere  
5 Fernanda zaldi karrosan zihoalarik Madrilen gaindi, bat-batean zaldiak erotu baitzitzazkion. Mutiko gazte bat, Raimundo Güell delakoa, ordu arte ez ezaguna, ausartatu zen haien balakatzera eta, bizia salbatu ziolakotz horrela, printzesak eskerrak eman ondoan, hasi ziren biak amodiozko solasetan.

Orduko gobernu liberala, Narvaez-en eskutik, haserretu zen hura ere Josefaren kontra,  
10 ikusiz zer ausartziarekin ezkondu zen, gortearen ohitura guziak eskuz bezala baztertuz eta amodiozko ezkontza bat baizik ez eginez. 1848an esposatzera zihoazen biak, noiz eta ere Madrilgo errege palazioak jakinarazi baitzien ezkontza hori ez zela nehondik ere onartzen ahal. Espainiatik kanporatu zituen senar-emazteak, Josefa-ri zituen titulu guziak kenduz. Izan zitekeen ere, Güell-tarrak erreboluzionario edo iraultzaile  
15 izateaz akusatua zirela. Dena den, senar-emazteak bortxatuak izan ziren Frantziara joaitera.

Baionan ukan zuten beren bizitegia, Allées Marines karrikan, eta lau urte luze iraun zuen erbesteak edo desterruak. Esperantzetan gertaturik, Josefa-k nahi zuen Espainiako lurretan sor zedin baitezpada bere haurra, erregetiar haur bati zihoakion  
20 bezala, eta non hobeki Luzaideko bentetan baino, Frantziatik bi urratsetan ? Horrela ez zuen izkaturik edo gordeka Espainian egoiterik izanen, norbaitek salatu beldurrez, eta, eguna hurbiltzean, joaiten ahalko zen bere erresumara haur ukaitera.

Beharrik bazituzten adiskideak, ezinbertzean egiazko laguntzaileak. Haietan,  
25 Luzaideko Pedro Aguirre, Cortes-etan diputatu izana. Eta, hain justuki, jaun horren aitak, Francisco Aguirre-k, bazuen etxe bat, Bentetako auzoan, Frantziatik Espainiara doan zubi muturrean.

Haur ukaiteko garaia hurbildu zitzaionean, utzi zioten gogotik iheslarieri frantses lurrean zuten beste etxe bat, orain Meharin-enea deitzen dena, zubiaren  
30 hastapenean, eta han egon ziren beha. Azkenean, 1849ko maiatzaren 28an, horra non hasten diren Josefa-rentzat haur ukaiteko minak.

Karrosatik jautsi bezain laster, medikua badoa Josefa-ren gana, ikusteko zer heinetan dagoen. Berehala badaki haurra munduratzan ari dela. Deliberatzen dute Josefa-k behar duela, denborarik galdu gabe, Espainiako gunera joan, lau gizon eta bi  
35 emazteren artean. Ilezko berogiez edo manta batzuekin ontsa inguratzen dute eta zubi meharrean pasatzen dira, nehork ikusi gabe. Gaua ederra da, ilargi xuri eta hotzik ez. Erran gabe doa bigarren etxe horretan ere ohea prest zegoela aspaldian, supazter eder bat lagun, dena gar eta pindar.

Luzaiden gaindi A Aintziburu/JB Etxarren

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL ET TECHNOLOGIQUE		
ÉPREUVE : <b>BASQUE (Navarro Labourdin)</b>		
8BSV2ME1	Ce sujet comporte 2 pages.	Page 1/2

I- Ulermena (10)

- 1- Nor da Josefa Fernanda testuaren arabera ? (1)
- 2- Nola topatu zuen bere senarra ? (2)
- 3- Zergatik haserretzen da gobernu liberala ? Zer ondorio izan zen Josefarentzat ? (2)
- 4- "Esperantzeta" jartzen delarik Josefa, zer helburu du ? (1)
- 5- Zein da Pedro Agirreren rola istorio honetan ? (1)
- 6- Deskriba zenezake etxe zubi eta mugaren geografia. Zer da hauen plana ? (2)
- 7- Zer egiten dute medikua jiten delarik ? (1)

II- Adierazpen pertsonala (10)

*Les candidats de la série S et de la série STG ne traiteront pas la question 2.*

- 1- Testuaren arabera nola imajinatzen duzu Josefa Fernanda pertsonaia ? Honen jokamoldea koherentea zaizu ? (L : 4 ; S : 6 ; STG : 6)
- 2- Gobernu liberalaren deliberoa komenta ezazu, jakinez Iraultza frantsesaren printzipio batzuk betetzea zutela. Xede. (L : 3)
- 3- Ezkontza anitz aldatu da denboran zehar ? Edo ez hainbeste ? (L : 3 ; S : 4 ; STG : 4)

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL ET TECHNOLOGIQUE		
ÉPREUVE : <b>BASQUE (Navarro Labourdin)</b>		
8BSV2ME1	Ce sujet comporte 2 pages.	Page 2/2